



## **BALIO PROPOSAMENA**

Azken urteetan aurrerapen nabariak eman dira gizartearen hainbat arlotan, eta hauetako batek pertsona elbarrituei (ezgaitasun psikologiko edo fisikoak dauzkaten pertsonak) ematen zaizkien laguntzekin zerikusia du. Gure enpresak ezgaitasunak dituzten pertsonen gain, elbarrituak ere eguneroko ekintzetara gerturatzeko, surfa adibide bezala, surf taula zein surf klase bereziak eskaintzen ditugu, pertsona hauetaz gain, elbarritasun ez desgaitasun gabeko pertsonen gain ere gure enpresaz gozatu dezakete. Guk enpresa bati surf taulak erosten dizkiogu. Ondoren, gure enpresan modifikatu egiten ditugu, elbarrituentzat eta elbarrituak ez direnentzat egokiak izan daitezen, haiek erabili ahal izateko.

Abantaila asko aurkitzen dizkiogu, garrantzitsuena, aniztasuna da, edozein elbarritasun mota duzula ere, gure eskolan edo gure tauletan surf eroso egingo duzu eskolako irakasle formatuen laguntzarekin. Gehien bereizten duguna, taulak dira, gure taulak elbarriei surf-a praktikatzeko gaitasuna ematen die, elbarritasun mota ezberdinetan oinarritutako taulak diseinatzen ditugulako. Beste aldetik ez elbarrituengan pentsatzen dugu, beraiek ere taulak erosteko aukera dute, baita hauek pertsonalizatzekoa ere, dekoratuz adibidez.

Gure enpresak dituen hainbat indargune, elbarriengan eta ez elbarrituengan dugun gertutasuna eta langileak duten formakuntza dira. Beste enpresekiko izan ditzakeen desberdintasun nabariak, berrikuntzan eta enpatian oinarritzen dira, besteengandik gehien bereizten gaituzten baloreak hauek izanik. Gainera, elbarrituengan pentsatzen dugu, hauen araberrako taulak salduz. Hau da, hauek normaltasunez surfeatu dezaten elbarritasunik ez desgaitasunik ez duten pertsonen antzera, taulak moldeatuko ditugu eta klaseak emango dizkiegu.

Gure konpetitzaile nagusiak beste surf elkarteak dira, hala ere, ez gara beste elkarten beldur, elbarritasunari zuzenduta dauden surf elkarten kopurua oso murriztua delako. Horretaz gain, jakinaren gainean gaudenez, beste surf elkarteek ez dute eskaintzen guk eskaintzen ditugun taulak pertsonalizatzeko aukerak, hortaz, besteekin alderatuz bezeroentzako nabarmenagoak izango gara.

Gainera, nabarmendu nahi dugu gure enpresak eskaintzen dituen zerbitzu zein ondasunak bezero bakoitzarentzat bereiziki pertsonalizatuak direla. Azaldu dugun moduan, gure enpresan, oholak bezeroaren desgaitasun edo elbarritasunaren arabera pertsonalizatzen dira hala ere, taulak diseinatzeko orduan ez elbarritasunik ez desgaitasunik dituzten pertsonentzat ere disenaitzeko aukera dugu. Pertsonalizazio hauek guk egiten ditugu. Bezeroarekin gertutasunez hitz egin ondoren, beharrezkoak diren neurriak hartu eta gure fabriketan, modelaketa guztiak egiten dizkiogu gure bezeroak eroso eta erraz surf egin dezan.



Gure gizartean, pertsonak taldeetan desberdintzen ditugu beraien gaitasuna zein gorputzen arabera, elbarritasun edo desgaitasun bat badute ere, besteok egiten ditugun jarduera gehienak egiteko gai direla uste dugu. Inklusioa gure oinarritzko balorea dela esan dezakegu, gure ustez, beharrezko baliabideekin edozeinek egin ditzakelako surf-a bezalako ekintzak.